

KONTU BERRI BAT

NIK uste det oranche jendia ezin keja litekela, gauza berririk azal-tzen ezdalako.

Izandu dira; emakume gazte bat, kofre gorri batian bere senar gayak sartuba; tranbiak ikazkiñ bat pasia.....

—Pasia nola, ¿azpiyan?

—Ez; ate batetik bestera; burrukak, dantzak, ardotegi berriyak eta naiko eudiya. Jostatzeko diña gauza uste det badirala.

Eta ala da; ezta ezer tontuagorik, ordubak pasatzia, ezeren berri gabebaño.

Jaiki, jantzi, gosaldu, joan, etorri ta beti bat. ¡Igualekua da!

—¿Ez aldakizu ezer?

—Ez.

—¡Gizona! ¡telegrafuen ariyak ausi ta gerri gerritik ebaki du kale garbitzalle bat.

—¿Ta?

—¡Garbitu dubela!

—¿Zer demontre?

—Eta erori da ez si ta ez no, alchatzen ari ziran eche aundi bat; ta gañera fama aundiko bersolari bat, bersuak jartzen ari da, jun dan ur-teko sagardo berriyari.

Orla, esan lezake batek, badubela non denbora pasa ta libratzen dala bere burubakin egiteko enbat ez egitetik.

—¡Zu, erri! ¿Zer egiten dezu lumero oyeri begira?

—Ia boltsa igo edo jachi egiñ ote dan.

—¿Eta bai aldezu zerbait ikusteko patrikera ortan?

—Ez; baña jakiñ nai nuke, arratzian echerakuan serenuak galdetuko balirake ere.

—¿Serenua diyozu? ¡Alkatiari gizona, izketan zekiyeen mona ostu diyote!

—¿Eta zer egin du?

—Monik gabe gelditu; baña badaki zein dan ostu diyona.

—¿Zein da?

—Lapur bat.

Atzo allegatu zan beste berri bat esanaz : elurra eroriko dala ugari, ta andik iru egunera ta lau ordura, jelatuko dala sastre bat oso esaguna erriyan, bere osabari isayak jartzen ari dala, eseri eziñ dalako.

—¿Sastriorrek eztu sugur muturrian grano berde bat?

—Ori ez liteke esan.

—¿Eta arreba bat, chit maja jasten dana?

—Ala diyote bai; porru perrejillen chanponak chiskatu ta apaintzen dala. Eta..... ¡a bai! ¡Ainbesterañoko otzak egingo ditu, Koncha guziya ta arrantzako bafore bat geldituko dira jelatubak.

—¿Eta gero nola ausi?

—¡Martillubakin, gizona, martillubakin!

Uriberrin, alako indarrian egin du mendebala, non tiñaku batekin zijuan mirabe gazte bat, artu ta jo asi diyo, danbolintero onchuenari, gosaltzeko libra bi angula eroatera zijuala.

Orla berri charrak diranian, batel; badu zeri par egiñ. Orain gizon jakintsubak diyotenez, lenguz gañera izango ditugu, ekaitz gogorrek beren billarta edo propina ta guzi. Iraungo du ill au bukatu arte; azke-neko egunian asiko dira turmoyak goizian gosaltz onduan zortzi terdiyotan; eudi jasa amarretan: eroriko dira lau edo bost chimista; baña gizon on bat billatu ezkeron, ori guziya atzeratu liteke egun batzuketako.

—¿Zenbat egun bezela?

—¡Nolako gizona dan! Ori orla gertatuko dala dudik ez dago, zergatik gizon astrolobu oyek, zer datorren letzen dute zeruban, guk paperetan kaleko berriyak bezela añ justu ta ondo gertatzen da beti, non aitzen dan.

—¡Martina!

—Andria.

—Atera itzazu balkoiko lora ontziyak eta amarra zaitia ondo burnizko oyari, zergatik ni apalera nua.

—¿Baña, señorita, zergatik?

—Amarretan puntuban allegatzekua dalako tronpa edo itsas tronpeta bat, urez eta arriz betia.

—¿Eta ori nondik daki?

—Igeldokuak esan diyolako gure gobara-zaliari, konfiantza osuan.

—Ni atiak eta leyo guziyak iztera nua.

—Ondo egingo dezu ta tronpa edo dalakuori etortzen bada, esan zayozu, emen ez dala musikero biarrik.

V. IRAOLA

